

2000KO AZAROAREN 8AN, GOBERNU BATZORDEAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA

LEKUA: Beasaingo Udalerria

ARETOA: Batzar Aretoa

EGUNA: Zortzia

HILABETEA: Azaroa

URTEA: Bi mila

HASIERAKO ORDUA: Goizeko bederatzia

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Lau (3)

MAHAIBURUA: Jon Jauregi Bereziartua

BILDUAK: Josi Insausti Mujika

Arantxa Aseginolaza Azkargorta

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1- AURREKO AKTA

2000ko uztailaren 20ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da inolako aldaketarik aurkeztu ez delako.

2- FAKTURAK

1.706.942 pta.ko zenbatekoa duen faktura-sorta aztertu da eta aho batez ondorengo erabaki da:

Lehenik.- Aipatutako sortan sartutako faktura bakoitzaren eta guztien gastua onestea.

Bigarren.- Faktura horiei dagozkien hartzekodunei ordaintzeko agindua ematea.

3- LAGAPENAK

a- Astigarretako eskolen erabilera Astauzel elkarteari lagatzea.

Zerbitzu batzordeko aldeko txostena izanda, aho batez onartu da Astigarretako eskolen erabilera Astauzel elkarteari lagatzea eta horretarako ondorengo hitzarmena elkartearekin sinatzea erabaki da:

“BILDURIK

Alde batetik, PEDRO MARIA ALUSTIZA AYESTA jauna 015187049 NA duena eta Astigarretako Muxika baserrian, 23an helbideratua, ASTAUZEL elkartearen izenean.

Beste Alde batetik, JON JAUREGI BEREZIARTUA, Beasaingo Alkate-Lehendakaria. Ekintza hau burutzeko eskurantzza Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzen duen Legearen 21,1b) artikulua eta azaroaren zortzian gobernu batzordeak egindako bileran hartutako erabakiak ematen dio.

AURREKINAK

I- “ASTAUZEL” izenarekin Astigarreta auzoan helbidea duen elkarte eratu da. Elkarte hori Eusko Jaurlaritzako Elkarte Erregistroko lehenengo sekzioan inskribatu da AS/G/08746/2000 zenbakiarekin eta IFK G20707212 da.

Elkartearen helburua, auzoko soziokultural jarduerak antolatzea da, baina beti ere Udalaren babesarekin.

II- Udal inbentarioan, Udalaren izenean dator Astigarreta auzoko eskola zaharren eraikina eta ASTAUZEL elkarteak Udalarari eskatu dio eraikin horren erabilera lagatzeko aipatutako helburua betetzeko.

III- Nahiz eta 99. urtean, Udalak eraikinaren teilatua konpondu, gaur eguneko egoera ez da ona eman behar zaion erabilerarako. Horren ondorioz, eta kontuan izanik, elkarteak bere helburuak betetzeko jarduera ekonomikoak garatu ditzazkela, eraikina berritzeko konpromezua hartu du. Obra horrek bederatzi milioi eta bostehun mila pezetako kostua du.

IV- Bi aldeek elkarri kontratuak egiteko eta obligazioak beren gain hartzeko ahalmena, aitortzen diote eta, kontratu hau idatzi dute ondorengo

HITZBAKETEKIN

Lehenik. Beasaingo Udalak ASTAUZEL elkarteari Astigarreta auzoko eskola zaharren eraikinaren erabilera lagatzen dio hogeita hamar urteko iraupenarekin, denbora horretan a bada desegiten eta eragin duten inguruabarrak mantentzen badira.

Bigarren. Lagapena prekarioan egingo da eta dohanik.

Hirugarren. ASTAUZEL elkartearen eraikina berritzeko obra zibila egiteko ardura hartu du eta obrak bederatzi milioi eta bostehun mila pezetako kostua izango du. Udalak lau urtetan elkarteari diru hori ordainduko dio, baina alde aurretik behar diren jatorrizko edo konpultsatutako fakturak aurkezteaz gain, udal teknikoaren txostena ere aurkeztuko da adieraziz, fakturretan azaltzen den adineko diru kopuruan obrak exekutatu direla.

Halaber, 2000 eta 2001. urteetan Udalak elkarteari ordainduko dio, aipatutako obra egiteko eta esandako kopuruarekin elkarrekin kontzertatu duen maileguaren interesak, beti ere banketxeko agiriak aurkeztu ondoren.

Lauugarren. Ekipamendua, energia elektrikoa, ura, garbitasuna nahiz eraikinaren mantenimendua, ASTAUZEL elkartearen kontura izango dira.

Bosgarren. Astauzel elkarteak 25.000.000 pezetako erantzukizun zibileko aseguruia suskribatuko du eta urtero indarrean dagoen polizaren kopia konpultsatua aurkezteaz gain, urte bakoitzeko erreziboa aurkeztuko du. Horiek gabe 2001. urtetik aurrera ez da ordainduko tokatzen den diru-kopurua.

Seigarren. Aldi berean Astauzel elkarteak, higiezinaren edukia aseguratzeke polizaren agiria aurkeztuko du.

Zazpigarren. Eraikina Udalaren eskura pasako da eta eta kalteordain-eskubiderik gabe pasa ere, premia handiagoko beharrezan publikoetarako behar denean eta eta bertan egiten diren hobekuntzak Udalarentzat izango dira. Eskuratzeko-errekerimendua, sei hilabeteko aurrerapenarekin egingo da eta errekeritutako eskuragarritasuna ez betzea, atzerapen-egun bakoitzeko 5.000 pta.ko kanonarekin zigortua izango da eta elkartearen desgaitua geldituko da etorkizunean beste lagapen batzuei lortzeko.

Zortzigarren. Auzoko edozein bizilagunak eskubidea izango du bazkidea izateko.

Bederatzigarren. Hizkuntz Politikako irizpideak jarraituz, ekintzak eta publizitatea ere, euskeraz izaten saiatuko dira eta horrela ez denean, euskerak lehentasuna izango du, letraren tamaina, iragarkien denbora, e.a.

Hamargarren. ASTAUZEL, herriko toki eta bideetan publizitatea jartzeari buruzko ordenantza erregulatzailerak betetzeko konpromezua hartzen du, baimendutako tokietatik kanpo kartelak ipintzea debekatuta baitago.

Eta guztiaren adostasun frogatzat bildutakoek dokumentu hau bikoizturik sinatu dute goiburuan aipatutako data eta lekuan.”

b- Itola baserriaren erabilera lagatzea.

Ezagutzera eman da, Itola baserria German Herrador de la Rosa jaunak erabiltzen duela, untxiak hazitzeko. Gizarte Ongizate batzordeak 2000ko urriaren 23an egindako bileran, Sebastián Castello Duvalek duen egoera berezia aztertu ondoren, erabaki du Itola baserriko alde bat, hau da, sarrera, sukaldea, gela eta bainua prekarioko lagapenean uztea eta honen berri German Herrador de la Rosa jaunari ematea.

German Herrador de la Rosa jaunak aipatutako gelak gauzaz beteta zeuzkanez, esan zaio libre uzteko eta untxiak dauden tokira iristeko paretan zuloa irekitzeko eta ate bat jartzeko. Kontua da gauza batzuk kendu ondoren, gizarte-ongizateko zerbitzuek ohartarazi direla baserria hainbat tokietan ez dagoela egoera onean Sebastián Castello Duvali eskaintzeko eta obra batzuk egin behar direla. Beraz, pertsona hau ez da oraindik Itola baserrian bizitzen hasi.

4- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko beste gairik ezean, bilera goizeko bederatziak eta erdietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.